

IDEIA: KINERGI

Gaur egun, energia aprobeatzeko hainbat makina sortzen ari dira. Guk daukagun ideia zera da. Egunero hamaika mugimendu egiten ditugu: Ate bat ireki, urduri gaudenean ostikotxoak eman klaseko mahaiari, baranda eutsi eskailerak igotzen edo jaisten ditugunean...Orain imajina ezazu lehen aipatutako mugimendu horiek, makina aproposak erabiliz, eraldatu ditzakegula eta hauekin energia lortu. Makina hauek *Kinergi* izena edukiko dute.

Energia berriztagarrien sektore berri bat sortuko litzateke. Ez genuke soilik energia berriztagarria fenomeno naturalekin lortuko, aldi honetan pertsonekin ere lortuko genuke. Guk uste baino energia gehiago sor dezakegu eta aprobeatza ditzakegun mugimenduak asko dira.

Egungo teknologiarekin, mugimendu horiei atera diezaiokegun energia ez da oso handia, aldi berean, nahikoa izango genuke bonbila edo halogeno batzuk pizteko, ate mekanikoa martxan jartzeko, ordenagailuak kargatzeko... Hala ere, hau aldakorra da. Zenbat eta *kinergi* gehiago izan orduan eta energia gehiago. Denbora pasa ahala eta teknologiaren garapenarekin batera, egindako *kinergi* hauek hobetuko genituzke eta hauen errendimendua hobetu. Adierazpen hau funtsezkoa izango da gure etorkizuneko enpresan.

Ondo ulertu ahal izateko pare bat ideiei azalduko ditugu:

-Ate bat daukagu, eta honi lotuta burdinezko hari/soka bat zilindro bati kiribilduta. Atea ixterakoan soka tenkatuko litzateke eta aldi berean deskribildu zilindroaren errotazioa sortuz. Zilindro honetara dinamo bat instalatuta izango genuke eta zilindroaren energia zinetikoarekin energia elektrikoa sortuko genuke.

-Beste ideiei bat klaseko mahaietan pedalak jartzea da. Eta hauekin beste dinamo bat. Berriz ere, energia elektrikoa sortuko genuke energia zinetikoarekin. Saiatuko ginatke pedal hauek soinurik ez egitea, klaseko giroa ez apurtzeko.

Orain hau guztia jakinda eta makinak behin bistaratuta, imajina ezazu proiektu hau eskoletan, enpresatan, etxeetan... eta honekin batera, azalduko *kinergi hauek* bezalako beste modelo batzuk. Eraikin bakoitzak bere energia elektrikoa kudeatzeko gauza izatea. Ez duzue horrelako etorkizuna aurreikusten?

